

**RAFAEL
MATA**
Geografoa



“Arkitekto handiek eraikin eder askoak uzten dizkigute, baina kalitatezko hirigintza proiektu gutxi”

Aitaren etxean maitemindu zen geografiarekin, Malagan, erliebean egin-dako mapa igeltsuzko bati begira. Igeltsuak arrastoa egin zion, eta horri jarraiki, bidea lan bihurtu zaio, eta mapak lanbide. Rafael Mataren ustez, geografia ez da ibai, mendi eta itsaso kate bat, buruz ikas-tea. Geografia funtsezko elementua dela dio lurraldeak orekaz antolatzeke eta garapen iraunkorraren muinera iristeko.

Mapak bai, baina zer gehiago egiten du geografo batek?

Mapak lan baten ondorio dira, lurraldea aztertu ondoren sortuak. Lanik handiena lurraldea aztertzen eta ezagutzen egiten dugu, bere ingurumen ezaugarriak, gizarte ezaugarriak eta ekonomia ezaugarriak aztertzen. Eta hori mapetan jartzen dugu gero. Baina, jakiteaz eta ikertzeaz gain, gure jakintza besteren eskura jarri nahi izaten dugu, lurraldearen gain egin nahi dituzten esku-hartzeetan erabil dezaten.

Eta, jaramonik egiten dizuete?

Oraintxe hasi dira gure lana aintzat hartzen, gu ere bide berriak jorratzen hasi baikara. Eredu berrietara hurbildu gara –hirigintza, ingurumen gatazkak, gizarte gatazkak...–, eta gero eta gehiago aitortzen dute gure lana. Gure lanbidea gero eta lotuago dago arkitekto, ingeniari eta natur zientzietako profesionalen zereginari. Ikasketa planak ere horretara moldatzen ari gara.

Geografiak aurkitu duela bere bidea, alegia...

Lehen ere bazekien baina mugatu samarra zegoen hezkuntza arloa eta ikerketara. Egitetik ekitera iritsi beharra genuen. Oraingoa une ona dela iruditzen zait, tokian-tokian jarduteko, zein nazio mailan eta baita munduan ere. Lehen, arloka lantzen ziren arazoak –ingurumen arazoak, ekologikoak, kulturalak, ekonomikoak...–, eta egun lurraldeei lotuta lantzen dira, eta geografoek ezin diogu tren hori huts egin.

Nola eragiten dio geografoaren lanak gizarte bizitzari?

Ikertuz eta jakintza barneratuz, saiatzeko gara ikusten ea arazorik edo kontraesanik dago-

en gizartearen eta lurraldearen artean. Arazo horiek konpontzen saiatzen gara, beste profesional batzuekin elkarlanean. Oreak bilatzen saiatzen gara; ingurumen balio, eta gizartearen hazkundearen artean.

Oreka hori ez ote da utopia...

Bai, baina beno, gu beti horren bila ari gara, geografiaren diziplinak bere-berea baitu konpromiso hori.

Zuen lana ez da bukatzen lurraldea mapa bihurtuta. Lurralde horretako esku-hartzei buruzko gomendioak ere eman nahi dituzue.

Bai, gutxien-gutxienez, iraunkortasuna egon dadin oinarrian; horrek zer esan nahi duen? Lurraldea zuhur erabiltzea, balio batzuk ezagutaraztea, eta lurralde hori inolako kontrolik gabe kudeatzen badugu, eredu horrek nora eraman gaitzakeen ohartaraztea.

Baina horren kontrako interesak ere badira.

Bai, noski. Interes handiak, eta indar handia egiten dute iraunkortasunaren eta zuhurtziaren kontra.

Ptolomeoren eta Google Earth-en mapen artean, non zaude zu?

Ezinbestean, Google Earth-en irudietan, horiek baitira egungo irudiak, baina horiek ezingo lirakeke interpretatu Ptolomeoren maparik gabe, haiek zeukaten kultur kaltetatik gabe eta haiek daukaten historiarik gabe. Hor oso garbi ikusten da katea ez dela eten. Ptolomeotik Google Earth-era, tradizioa eta berrikuntza, biak eskutik. Eslogan ona izan liteke.

Espainiako Paisaia Atlasaren egileetako bat zara. Zein paisaia hautatuko zenuke?

Beno, gehienetan, bakoitza berearekin geratzen da, hurbileko paisaiekin, bizi izan dituenekin; eta nirea, Sarquiako da, Malagan. Baina atlas horretan, paisaia bizirik daude, gure seme-alabak dira, nolabait. Nik uste dut atlas honekin ikasi dugula hori, eta beste gauza bat ere bai: aniztasunak ematen diola balioa. Atlasaren helburua ez da hierarkiazko taxonomia bat egitea eta paisaia onak eta txarrak bereiztea; paisaien aniztasuna islatu nahi du. Nire ustez horrek baitu balioa, aniztasunak.

Aniztasun horrek bereizi egiten du Espainiako paisaia Europakoaren artean?

Bai, Europako bioaniztasunik aberatsena daukagu, eta

“Paisaia txarra zer da? Gaizki antolatuta dagoen lurraldea”

paisaia-mosaikorik handienetako, berez handiak direlako Penintsula eta uharteak, baina baita historiaren pisuagatik ere, eta aniztasun kulturalaren eta naturalarengatik ere bai. Gainera, Espainiako paisaiek oso ongi iraun dute, harrizteko moduan, eta Europako beste leku batzuetan ez da berdin gertatzen.

Zeinek esan hori kostaldean hirigintza nola hedatu den ikusita.

Bai baina ezin gara mugatu eremu bakarrera, lurralde bakarrera. Kosta eremu batean paisaia balioak galdu ditugula uste dut, turismoa erakartzea lehenetsi baitute, paisaiaren balioei kasu handirik egin gabe. Espainiaren barnealdean, ordea, Espainia Atlantiko-Hezean, mendietan eta lautadetan, paisaia askok eutsi diote beren izaerari eta nortasunari, eta atlasean ere nabarmendu dugu hori.

Kostaldeaz gain, zein inguru daude hondatuta?

Nire ustez, hiri inguruetan eta metropolietan oso zabar gertatu da hazkundera. Zoritxarrez, hiriak eta industriak hedatzerakoan, ez da kontuan hartu zer ondorio izango zituen horrek paisaian. Esango nuke metropoli eremuetan eta kosta inguruetan izan dela galera gehien, baina hiri ertainetan, txikietan eta landa eremu askotan aintzat hartu ezean paisaiaren balio horiek, arriskua dugu laster lurralde osora hedatzeko galera hori.

Industria eta azpiegiturak bateragarri ote dira paisaiarekin?

Bateragarri egin behar ditugu.

Elkarren osagarri egiteko, zer behar da, diru gehiago, inbertsio gehiago?

Batzuetan bai. Baina askotan, jende multzo baten apustua izaten da, orekaren aldeko apustua; irispideak, garapena eta kontserbatze eredu auzitan jarri, eta erabaki: zer egin eta nola egin? Baina nik badakit, ziurtasun osoz, gainera, lurraldeak banan-banan aztertzen ari garelako, askotan ez dela diru kontua, irizpide kontua bai-

rik. Ez da diru gehiago behar, beste irizpide batzuk behar dira erabakiak hartzeko.

Paisaiarekin errespetuz jokatuta zer irabazten du gizarteak?

Bitzta kalitate hobea, hasteko. Erosoago bizitzea. Eta luzera begira, hauxe da erronka: lurra eta lurraldea zuzurtzia eta tentu handiz kudeatzea, baliabide horiek agortu egiten baitira, hain dira mugatuak.

Iraunkortasunak ere sortzen ditu gatazkak, ordea. Hor dugu energia eolikoaren auzia: energia berriztagarria da, baina, talde ekologista askok salatu dutenez, paisaietan eragin handia du. Bi ikuspegi daude hor elkarren lehian. Nola bilatu hor oreka?

Gatazka hori oso gordina izan den lekuetan esku hartu dugu. Menorcan, adibidez, Uharterako Lurralde Plana bukatu genuen orain dela urte batzuk eta Espainiako Hirigintza Saria irabazi genuen. Han ere hori zen gatazka, paisaiaren balioak batetik, eta energia berriztagarrietan oinarritutako energia eredu bestetik. Eztabaiden ondotik, ados jartzea lortu zuten: uharterako zati batzuei erabilera turistikoa kenduko zieten eta balio ekologiko gutxien zuten eremuak bereiziko zituzten, batik bat, faunaren eta paisaiaren ikuspegitik. Lau parke eoliko egiteko asmoa zuten, baina, azkenean, bakarra egin dute, kalte ekologiko gutxien eragingo zuen eremu horietako batean. Eztabaida ez da energia berriztagarriak bai edo ez; garapenez eta energia kontsumoaz hitz egin behar dugu, eta ongi aztertu zer eredu nahi dugun.

Paisaiaz hitz egiten denean, hiriko paisaia ere sartzen da hor?

Paisaia horixe da, paisaia; ez du beste deiturarik, edo eskalarik. Paisaiaren Europako Hitzarmenak ere ez du desberdintzen paisaia on edo txarrik, hiriko edo landakorik. Hitzarmen hori Espainiak 2007. urtean berretsi zuen. Nazio Batuen Erakundeak argitaratu dituen azken da-

tuek esaten dute, gizateriaren historian lehen aldiz, jende gehiago bizi dela hirietan, landa inguruetan baino.

Eta nola eragiten du hiriko paisaiak hango biztanleen bizitza kalitatean?

Zure inguruarekin dituzun harremanetan eragiten du, eta badu lotura mugikortasunaren eta irispideen arazoarekin. Egun, hiri garapenean, irizpide lauso samarrak erabiltzen dira, gauzak ongi zehaztu gabe eta zabal hartuta; eredu hori nagusitu da, baina horrek hondatu egiten ditu paisaia mota batzuk, eta bizitza kalitatea kendu hiritarroi, denbora eta energia asko erabili behar baitugu batetik bestera joateko. Lurraldearen aurpegia da paisaia, eta hor ikusten da lurraldea osasuntsu dagoen edo gaixo dagoen. Paisaia txarra zer da, beraz? Gaizki antolatuta dagoen lurraldea.

Zer esango zenuke Espainiako hiri paisaiei buruz?

Trantsizio demokratikoaren garaitik hona, ahalegina egin da hiri paisaia batzuk zaindu eta ongi kudeatzeko, multzo historikoen sailean sartzen diren horiek, batik bat. Horietako batzuk interes kulturalako ondasunak dira, UNESCOk Gizateriaren Ondare izendatu ditu... Gasteiz, Toledo, Kordoba... Horietan zerbait egin da, baina beste garai eta leku batzuetan, ezer gutxi. 80ko eta 90eko hamarkadetan, adibidez: hiri inguruak hedatu egin ziren eta egun, gizarte bizitzaren zati handi bat daukagu hor. Ereku berdeak, kaleak eta plazak non eta nola banatuta dauden ikusita, argi dago badela zer hobetua paisaia hobea lortzeko.

Eta zer egin daiteke?

Paisaien proiektuak egiterakoan, talde lana bilatu behar da: paisaia-arkitektoek, ingeniariak, pertzepzio sozialaren arloan aritzen diren psikologoak... elkarrekin egin behar dute lan. Paisaiak eta hiri hedatzeak diseinatzerakoan, ideia hau hartu behar genuke: hiria eraiki behar dugu, ez etxeak. Kontua ez baita lurralde batzuk etxeztatzea, baizik eta lurralde horrek hiri funtzioak betetzen jarraitzea. Arkitekto handiek eraikin eder askoak uzten dizkigute, baina kalitatezko hirigintza proiektu gutxi. Hori erronka handia da, geografo zein arkitektoentzat. Arkitektoek hiriak diseinatu behar dituzte. Ez soilik estadio eta dorreak beraien lanbidearen erakusgarri. Ez, ez, hiriak egin behar dituzte.

Eta inork jartzen ote dio arretarik beharizan horri?

Hirigileek, oro har, ez diote lehentasunik ematen; arkitektoek, ingeniariak, geografoek eta bestelako espezialistek ere ez, lurralde zientzietakoek, natur zientzietakoek eta gizarte zientzietakoek. Hirigintza ona aldarriktu behar da, ez obra handiak soilik.

Etxe atxikiaren kultura ez dator bat asmo horrekin...

Eraiki dutena eraikia dago, eta ezingo dugu dinamita jarri, jende askok ilusio handia jarri baitu horiek erosteko. Toki batzuetan ari dira berriz ere zentzu pixka bat eman nahian, hiri ikuspegi batekin ordenatu eta berrantolatu nahian eremu horiek, baina ez da batere erraza, hamar urtean, izan ere, halako hazkunde azkar eta espasmozkoa gertatu da.

Eta zer iruditzen zaizu golf zelaiak erabiltzea turistak erakartzeko?

Golf zelaiak egiterakoan hain buru gutxiarekin eta planifikazio eskasarekin jokatzea zentzugabekeria iruditzen zait. Hemen, udalerrri bakoitzak, eskualde bakoitzak uste du berak bildu behar dituela Espainiako golf jokalariguztiak, eta halaxe egiten dituzte gero planifikazioak. Espainian, baliabide turistikoak izan dira golf zelaiak, baina, batik bat, higiezinaren negozioa sustatzeko amuak izan dira. Inguruan eraiki izan dituzten 200 edo 2.000 txaletak saltzeko erabili dituzte.

2006an, Lurralde-Kultura Berriaren aldeko Manifestua sustatu zenuen, eta honako hau esaten da bertan: "Lurraldea modu iraunkorrean kudeatzea gizarte-betebeharra eta ingurumen-betebeharra da, zalantzarik gabe, baina bada, halaber, betebeharr ekonomikoa ere, eta oso premiazkoa da halakotzat hartzea".

"Espainiako paisaiek oso ongi iraun dute, harritzeko moduan, eta Europako beste leku batzuetan ez da berdin gertatzen"

Lurraldea gaizki antolatuz gero, diru asko galtzeko arriskua izaten da, eta, luzera begira, baliabide asko kolokan gera daitezke. Orain garai kritiko samarra da, dezelerazio garaia, eta une egokia da gogoeta egiteko, eta berriz ere ongi pentsatzeko lurraldearekin zer egiten ari garen.

Hirigintza iraunkorra dugu mintzagai. Nola definituko zenuke?

Hazkundearen ideia hau dauka oinarrian: zer nukleu dauden aintzat hartu, eta hortik abiatuta haztea, itsusitsuan ibili gabe. Erdi mailako dentsitatea edo dentsitate handia dagoen lekuetan, ahalik eta etekin handiena ateratzea garraio publikoari eta eremu batek biltzen dituen funtzio guztiei (funtzio produktiboari, aisialdikoari, hezkuntza funtzioari...).

Nazioarteko Muga Epaitegi bateko kide izana zara. Zer da hori, zehazki?

XIX. eta XX. mendeko geografo klasikoen zereginetako bat izaten zen, muga batzordeetako kide izatea. Txile eta Argentina arteko mugan sortu zen arazoa, zati txiki batean. Gatazka diplomatikoa piztu zen, eta gerra ere ez zen urruti. Ameriketako Estatuak Erakundeak beharrezko ikusi zuen arbitraje epaitegi batera jotzea, nazioarteko epaimahai bat sortu eta hark erabaki zezan nola behar zuen mugak inguru hartan. Esperientzia hura mugarri izan da nire lanean. Helikopteroa hartu eta Txileko eta Argentinako militarrekin lurralde horien gainetik hegan ibiltzea, banderek inguratuta... zoragarria izan zen eta, jakina, bi urteko eztabaida eta auzi saioen ondotik, ados jarri ziren bi herrialdeak. ◀